

berkei.e

2002ko ABENDUA,
106. ZENB. DOHAINIK



Joanitoren babesean

Bertso Eskolak 20 urte



Esti Esteibarrekin solasean



baleike



ELURRIK BATERE ez, hotza apenas, negu giroa ezkatuta... Gabonak gainean ditugu, baina eguraldiari erreparatuta beste urte sasoi batean gaudela ematen du. Dena ezin aldrebesa izan, hala ere.

Baleike behintzat, zintzo demonio dator, zuekin, irakurleekin hilerok daukan hitzordura. 106. zenbaki honetan denetik prestatu dizuegu. *Iritzia* emateko eskatu eta **fundamentuzko poteoa egiteko dekalogo**a prestatu ez dizue ba Oikia aldetik.. **Zumaiako gazteak maila bikaina dugula** irakurriko diozue Arritxu Iribarri. Kiroletan onak...baita poteoan ere, alajaina!!

Behin eta berriz gogorarazi arren beste behin ere esango dizuegu: **euskara hitz egiteko da**. Ze *Berri* atalean ezagutuko duzue Udalak eta Siadecok gure hizkuntza erabiltzeko dela gogorarazteko abian jarritako egitasmoaren berri.



Jakin eta ez hitz egitea pekatu larria da, eta kontuz ibili, *Trinidad*e santukoak ere hemen dituzue eta.

Hiru baino askoz pertsona gehiago izan ziren Durangoko azokan. Liburuak, diskoak...eta milaka euskaltzale. **Esti Esteibarrekin Jardunian** aritzeko gai aproposa, bai horixe!!

Durangoan ikusi ez genuena **Zumaiako Bertso Eskola** izan zen. Normala. **20 urte** bete dituenek, ospakizunak prestatzen aritu da eta. Guretzako, ordea, tarte bat egin, eta *ur haunditan* sartu dugu, lasaitze aldera.

Ura ugari eta nahi beste Portugalen dute. Azkenaldian beltz xamarak, zoritxarrez. Oraingoan *aluga se-ko* benetako arduradunarekin topo egingo duzue,

eta **Gabon kontuez** hitz egingo duzue-lakoan gaude. Garaia izanik...

Urte sasoi hau taldeko kirolak egiteko aproposa izaten da. *Izerdi patsetan* entrenatzaile bat jarri dugu, **eskubaloioa, Iñaki Zubimendi**. Jokalariak bakarrik izerditzen ote dira partida batean? Izerdi latzak aurreko mendean izan zituzten **ostrekin**. *Zarrak berri* irakurri beharko duzue zer gertatu zen jakiteko. Oraingo ostrak ere larri dabilta, fuel olioari ihes egin nahian. Ez dute lantegi ederra!! Ezta zumaiarrok ere, zikin-keria hori dena gure ingurura etortzen bada. **Garbiketa lanetan lagundu nahi duena** *tientuan* egon dadila!!

Gutxi asko hau duzue hilabete honetako **Baleike**. Gozatu!!

HERRI ALDIZKARIA

juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola

Oikialdean orriaren

arduraduna
Xabier Aizpurua

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren, Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar, Dani Carballo, Inaxio Tolosa,

Inaxio Manterola, Belen Golmaio, Izaga Garzia, Koldo Landaluze, Beñat Fernandez de Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Egoitz Lizaso, Garikoitz Telleria, Natur Taldea

Argazkiak

Baleike.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Azaleko

irudia

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

ZUMAIAKO HERRIARI

ITZIARREN ASKATASUNAREN ALDEKO PLATAFORMA

Bere kondenaen 3/4ak iaz bete zituen Itziar Arrizabalagaren aldeko kanpaina hasi ginela badira dagoeneko hilabete batzuk. Espainiako Gobernuak bere legea bete dezan lortu ahal izateko ezinbestekotzat jo genuen Itziarren aldeko atxikimenduak herri osoan bilatzea, honela herriko alderdi politiko, sindikatu, erakunde, txoko, kultur eta kirol talde eta enpresa handienetara jo genuen laguntza eske. Esan beharra dugu erantzuna nahiko ona izan dela kontuan hartzen badugu nola nahasten dituzten komunikabideek bazterrak eta pertsonen kontzientziak. Beraz, idatzi honen bidez eskerrak eman behar dizkiegu honako hauei:

EAJ/PNV, EA, Sozialista Abertzaleak, ELA, LAB, ESK, CC.OO, Zumaiaiko Institutua, Zumaiaiko Dendari Elkarte, Zumaiaiko Parrokia, Indamendi Mendi Taldea eta Indamendi txokoa, Aita Mari Arraun Taldea eta Aita Mari txokoa, Inpernupe Kultur Taldea eta Inpernupe txokoa, Ostarrena Zine-Kluba, Zumaiaiko AEK, Pilota Taldea, Lagun Artea eta Mendiaraiz enpresak, eta Elkarri.

Zenbaitzuk oraindik ez digute erantzun, beste zenbaitzuk baietza emateko lotuta aurkitzen direla esan digute, eta gutxi batzuek esan digute ezin dutela Itziarren askatasunaren aldeko atxikimendurik sinatu herrian fama ona ez galtzarren. Dena den, berriro ere mila esker atxikimenduaren alde egindako denei.

Amaitzeko, idatzi publiko hau aprobetxatu nahi dugu gure asmoen berri Zumaiaiko herriari agertzeko. Bizpahiru asteburutan sinadura bilketa egingo dugu, eta hori guztiarekin Zumaiaiko Udalera joko dugu. Badakigu bere garaian Udalak pleno batean Itziarren askatasunaren aldeko jarrera hartu zuela. Oraingo honetan jarrera hau berriro azaltzeaz gain, Udalak Itziarren kasua jarraitzeko eta Espainiako Gobernuarengana jotzeko batzorde bat eratu dezan gustatuko litzaiguke. Honela denok elkartuta ea zerbait lortzeko bidean jartzen garen.

Aurrez eskerrik asko arazo honekin kezkatuta dauden denei.

ITZIARREN ASKATASUNAREN ALDEKO PLATAFORMA

Fundamentuzko poteo baterako dekalogoia



Ibon Aizpurua

ERRIBERA KALEAN urte batzuk poteatzen igaro ondoren eta bertako adokineta aurrera eta atzera, ezkerretara eta eskuinetara ibiltzeak ematen duen esperientziari esker, Zumaian fundamentuzko poteo bat egiteko dekalogoia idaztera ausartu naiz. Badakit ez dela dekalogo perfektua izango, Erribera kalean ni baino buelta gehiago emandako jendea bai baita. Horregatik etorkizunean jaso ditzakeen aportaziotara zabalik geratzen da dekalogo xume hau.

Besterik gabe hasi gaitzen ba:

- 1.- Poteoan hasteko ordu egokiena eguerdiko 12ak dira, tabernariak ordurako txakolina frexko-frexko izaten baitute gure zintzurra ardo miragarri honekin bedeinkatzen hasteko.
- 2.- Pare bat edo hiru txakolin hartu ondoren zerbait jatea komeni da, patata tortilla pintxoak debekatua dago, onena jilda pare bat jatea txakolinaren garratzasuna ezerezean uzteko.
- 3.- Ondorengo tragoekin begiak diz-diz eta ahoa hitz eta pitz dabiltz. Beraz onena bazkaltzera joatea.
- 4.- Gure sabela materia solidoz ongi hornitu ondoren kafia eta kopatxua. Kafia? Hutsa ta doblia... Kopa? Bakoitzak beria jainkoaren legia...
- 5.- Arratsaldeko seirak ordu egokia da Erribera kaleko adokinei goroldioa kentzen hasteko berriro ere. Potea jarri eta taberna batetik bestera ibiltzen hastea besterik ez zaigu falta
- 6.- Arratsaldeko poteoa luze xamarra joan daiteke batzuetan, horregatik komeni izaten da indarrak gordetzea. Orain dena eman ez gero gauean akabo!
- 7.- Afaltzeko gose handirik ez da izaten normalean eta bai ordea poteatzen jarraitzeko, onena zer den? Pintxo pare bat jan eta kafe torero eta aurrera !!!
- 8.- Gauak jendea nahastu egiten omen du eta hori esan zuenak bazekien zerbait, beraz ordu horietan habilitadea libre izaten da besterik gabe...
- 9.- Gauaren amaieran oso garrantzitsua den puntu bat azken tabernara iritsitakoan ez irteeta da, bertan egon behar da argiak piztu arte. Azken tragoan Coca cola hartzeak izaten du biharamoneko buruko minaren kulpa guztia beraz ez okurritu horrelako edaririk hartzerik...
- 10.- Eta hamargarren eta azken puntua, beste gauza guztien gainetik IZAN ZURE BURUAREN JABE.



2002. ALBANIJA

Zumaiako gazteriak badu etorkizuna

GURE aurrekoei askotan entzun diegu: alferrik galtzen ari zarete. Eta seguru gazte izan garen garaian (eta ez gara orain noiz arte den bat gazte eztabaidatzen hasiko) horrelakoak guztiok entzun ditugula, baina ezin horrela mintzatu Zumaiako gazteei begira jarrita. Zestaz munduko txapeldun (Alberdi II, Goikoetxea eta Enbil); piraguismoan munduko txapeldun (Oier Aizpurua); beste batzuk munduko txapelketara ailegatu (Iban Iriondo, Igor Beristain, Imanol Lopez), edo mailarik gorenean jokatzera (Ibon Enbil, Jokin Esnal, arraunlariak)... tira! kiroletan modan-modan daudela zumaiaarrak eta ez kirol arloan bakarrik, kulturaren ere zer esan daiteke Jon Maiari buruz, edo Joseba Osa, edo Xabier Azkueri edo Imanol Azkueri buruz, edo Jon Manzisidorri buruz... edo hainbesteko arduraz lanean ari diren abesbatzez... oraintxe gazteenak Austriatik itzuli berriak dira, Vienan arrakasta lortu eta gero, 2 disko ere kalean ditugu egunotan; musika taldeak... edo Lucía Lakarra munduko dantzari onenaz... tira mugimendua dagoela, gazteak alegia lanean ari direla eta ez direla alferrik galtzen ari.

Hori bai, agian batzuk jarraitu egin behar dute entzuten: gure garaian zuen erraztasunak izan baldin bagenitu; zuen materiala harrapatu bagenu.... Ba hitz egin dezatela gazteekin eta jakin dezatela gazteek zer nolako zailtasunak dituzten nahi dutena aurrera ateratzeko, dituzten zailtasunak eta jartzen dizkieten trabak edo oztopoak zenbatekoak diren.

Corantzako bidea ez inoiz leuna izan; ez lehen, ezta orain ere. Ikasgaia ikasita, eredu jasota, ez dezatela orain gazteak direnek, heldu bihurtutakoan edo zahartutakoan bekatu bera egin, nahiz eta beti esan den gizakia dela harri berean bi aldiz erortzen den animalia bakarra. Beti lagundu gazteei, merezi duelako eta merezi dutelako eta laguntzeko modu asko daude: ekonomikoki, fisikoki, sikolojiki... Zumaiako gazteek izan dezatela etorkizuna, eta ahalik eta errazena, hala ere zaila izango da eta.



Arritxu Iribar

ESKERRIK ASKO!!

Bernart Etxabe Etxepare

Lerro hauen bidez bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiot Zumaiako dendarien elkarteari, Gabonak datozela eta "Premios de Navidad" kartelak gaztelania hutsean jartzeagatik.

Izan ere, guk, euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen garenek eta eguneroko bizitzan Zumaian -ere- euskaraz bakarrik bizi garenek, zer egingo genuke gaztelaniaz praktikatzeko honelako aukerarik ez bagenu? Gaztelania ahaztu, seguru! Horregatik, txalogarria da herri guztiko denda ia guztietan jarritako kartel guztiak gaztelania hutsean egotea. Total, zer demontre, lehendik ere nahikoa erraztasun badaukagu euskaraz irakurtzeko, euskaraz aritzeko, gure eguneroko bizimodua euskaraz egiteko, eta eskertzen da tartean honelako ekimen ausart eta originalak izatea. Oso pozik nago, gainera: pentsa, inoren laguntzarik gabe lortu dut oso-osorik

zer jartzen zuen ulertzea! Euskaldun batzuek ez dutela ulertuko? Ala, ba joan daitezela beste lekuren batera erosketak egitera! Zumaian gaztelaniazkoak dauka lehenasuna, zer demontre! Euskaldunok gutxiago kontsumitzen dugu, gutxiago erosten dugu, bezero okerragoak gara...

Jakin berri dut, gainera, tabernetan zozketa berezia egiteko asmatan direla, bidaia bat Kanarietara. Hori ulertu dut, behintzat, gaztelania hutsean zegoen bidai txartela irakurritakoan. Neuk bakarrik ulertu dut dena, gainera! Tabernariok, eskerrik asko zuei ere! Eskerrak gaztelania den-denok ulertzen dugun, denok elkartzan gaituen hizkuntza den, eta euskara eginkizun garrantzitsuetan, egunerokoetan, gero eta gutxiago erabiltzen dugun. En Zumaya, viva el castellano, pues!!!



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Azkenean iritsi zaidan/k ordua



Gorka Hormazuri

Ez duk/n ardura makala santutasun tituluari duintasunez erantzun beharra. Eskerrak, hirukoa izanik, beste biok konpon dezakezuela nik santutasunetik kanpo esan ditzakedanak. Trinidad eak horrenbeste

mendetan gordetakoak ez dadila galdu oraindik Beatifikaziotik pasa ez den Jainko Gorenaren zerbitzari apal honen egite okerrengatik...amen!

Hala ere, horretan hik, Uhin, baduk esperientziarik eta seguru nagok, Loiolakoa ailegatu zuan bezala, gu ere ez garella urruti ibiliko. Dena dela, aitortuko diat trinitate kontua lehenengo entzun nuenean Donostiako plaza etorri zitzaidala burura.

Bai, Uhin, bazekiat Ñoñostartuta egotearen ondorio dela nirea baina seguru nagok Estitxuk entenditzen nauela. Hirian herriko eta herrian, berriz, hiriko. Hau da hau!!

Ez, Estitxu, ez dinat honekin esan nahi hi hirikoa haizenik, oraingoz Hernani herria dun eta horrela konformatu behar. Ondo pentsatuta, Donostia ere ez zekinat hiri izateko moduan den, baina ausartu hadi beraiei hori esaten! Ederrak ditun, ba! Beno, pareja, trinitate honetan (arrazoi askorengatik) niri Aita izatea tokatu zaidak/n eta ea nola betetzen duzuen Semearen eta Espiritu Santuaren tokia... AMEN

Osterabe idazten pa la Trini

Uhin Loiola



Azkenekoan ez al zineten Madame Kontxexiri deitezotan geratu?

Trinidad earen erdiko adarrak jopunturantz apuntatu behar duela eta, autokritika pixkat egitea okurrutu zait orainguan.

Estreñeko gauza tori:

Tricornio, Tres en uno, Menage a trois, Trident... hauen aipua, gure ondorengoak holako jolas merke ta amaitezinetan eror ez daitezten. Beti zer idatzi ez jakiteaz gain, ene ezkortasuna lagun, eta publikatu egingo den horrekin zerbait salatzeke tentazioa sartzen zaigu. Ingo al deu fundamentuzko zoze egunen baten? (serio jartzen ari nauk gañea).

Bada egunotan, Itoiz-ena baino gehigo maria gora maria bera aitze deu, gauza beltz datorrela ta ondokuai beti txipriztintzen diyoula gordiña o refinaua izan eta beste kantu bat que viene que viene.

Ta nola beste zeako zea hori ez deun txilibratzen ba hori.

Halere, pottokigarrienak, bat kate berean bat ordu berean eukikotxozue. Espirituz oso santu ez nabil eta semearen papera hartuko dut, hortan hurrenak baino esperientzi gehiago det ta.

Esti, ezti-ezti hertsu.

Espiritu santua izatea tokatu zait, orduan...

Estitxu Eizagirre



Igual ez da txarra, ni zumaiar birtuala bainaiz, espirituak bezala hor egon gabe ere nahiko enbarazu sortzen dituen. Kezkatzen nau, oraingo ur bedeinkatuak Coca-cola kolorea daukala pentsatzeak. Gustora ikusiko nuke Fraga, bere irudia garbitzeko, Galiziako hondartzan bainatzen. Españaiko bandera toaila gisa hartuta, eta Francoren aurpegia bizkarrean tatuatuta daramala. Espero dut jubilatuek zintzo zainduko duzuela Zumaiako itsasoaren kalitatea, egunero releboka paol muturrera egiten dituzuen paseotan.

Agian aurtengo gabonetan mejiloi, langosta eta antzerako

zomorro gutxiago jateko balioko du zabaldu den sikosiak. Gastu gutxiago, beraz. Mariskoa jan duena, doala Algorrira edo haitzetara, bila. Berehala etortzen zaizkit zuri beltzean txikitako oroitzapenak, Cousteau kapitainaren pare, Beduara izkira eta amarrak harrapatzera joaten ginenekoak. Baldekada betetzen genuen, gure abilitate eskasarekin. Orain industrialdea da ibai-ertz hori. Santio hondartza inguruko paisajea ere majo aldatu da. Galizian bakarrik ez, gurean ere begiratu behar genuke marea beltzak, diruaren mareoak, zer ondorio uzten dituen ingurunean. Sermoi itxura hartu dit, gero, gaurko erretolirik. Amen!

EUSKARAZ JAKITEA EZ DA NAHIKOA. HITZ EGIN!!

2000 eta 2001 urteetan Siadeco Ikerketa Elkarteak Zumaiaiko azterketa soziolinguistikoa egin zuen. Azterketa horri esker, zumaiaarrok euskara zenbat eta nola erabiltzen dugun jakin ahal izan genuen, besteak beste. Orain Udalak eta Siadeco Elkarteak datu horiek herritarren etxetara bidaliko dituzte abian jarri duten ekimenaren baitan. Kanpaina horren aurkezpena egin zuten Maria Eugenia Arrizabalaga Euskara zinegotziak, eta Siadeco Elkarteak Juanjo Allurrek. Helburuak bi direla azaldu zuen Juanjo Allurrek:

- herritarrei azterketaren datuak jakinaraztea.
- euskararen erabileran eta iraupenean herritarrok dugun garrantzia gogoraztea. Lehenengo helburuak ez du misterio handirik, ez du galderarik sortzen. Bigarrenak, ordea, bai. Siadecok egindako azterketa hartan datu kezagarri batzuk azaldu ziren. 16 eta 39 urte artean dituzten herritar gehienek euskara dakite, baina erdiak baino gutxiagok erabiltzen du. Kezagarria, beste zerbait ez esateagatik. Hori ikusita, egitasmo honen helburua gure hizkuntzaren erabileran eta iraupenean euskal hiztunok dugun garrantzia azpimarratu eta gogoratu nahi dute. Horregatik, ekimena batez ere adin tarte horretan dauden biztanleei zuzendutakoa da.

Ekimena

Etxe guztietara bidaliko dituzte Siadecok egindako azterketaren datuak. Horretaz gain, 25 eta 39 urte bitarteko herritarrei beste orri batzuk bidaliko zaizkie euskara ez erabiltzeak dituen ondorio negargarri eta txarrak gogoratzeko. Izan ere, adin tarte horretan dauden asko gurasoak dira edo urte gutxi barru hala izango dira. Beraz, euskarak irauteko hain garrantzitsua duen etxeko transmisioa ez dago ziurtuta. Bestalde, guraso horiei zuzendutako jardunaldiak antolatuko dituzte, aurrez aurre jarri eta gure hizkuntzaren iraupenean duten ardura zuzenean azaltzeko.

Euskara biziberritzeko plana

Eusko Jaurlaritzak badu euskararen erabilera indartu eta bultzatzeko egitasmoa. Zenbait herritan martxan da dagoeneko plan hori. Maria Eugenia Arrizabalagak esan zigunez, Zumaiaiko Udalak ere egitasmo hori erabiltzea erabaki du. Oraindik, ordea, bileretan dabilta Jaurlaritzakoekin, eta pixkat itxaron beharko dugu gure herrian egitasmo hori martxan ikusteko. Gure hizkuntzaren onerako ez dadila gehiegi luzatu.



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**
ERRIBERA, 8 943 861694

**EGUZKI
PUB**



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

**AITA MARI
KAFETEGIA**



Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglais
catalán française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA ZALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

“Datorren urtean ere idatzi”

XIX. San Telmo literatur lehiaketako sariak banatu zituzten azaroaren 28an. Jon Maiak izan zuen ardura hori. Hona hemen saritu guztien zerrenda:

IDAZMENA

Ipuinak

- Idoia Garmendia (LH, .maila)
“Joneren hortza”
- Libana Taboada (LH, 4.maila)
“Biribilen ametsak”
- Irati Aldalur (LH, 5.maila) “Ganbaran desagertu zitzaidan panpina”
- Irati Uzkudun (LH, 6.maila) “Irrati berritsua”
- Maddi Gallastegi (DBH,1.zikloa)
“Edabe sorgindua”
- Gurutz Izagirre (DBH,2.zikloa)
“Aitonaren oinordekotza”

Olerkiak

- Garazi Alkorta (LH, 3.maila)
“Udaberria”
- Kepa Larrañaga (LH, 4.maila)
“Tamarindoa”
- Tania Lopez (LH, 5.maila)
“Zergatik zaude negarrez?”
- Olatz Iruretagoiena (LH, 6.maila)
“Adiskidetasuna”
- Markel Peñalba (DBH, 1.zikloa)
“Itsasoa”
- Lore Uranga (DBH, 2.zikloa) “Gau iluna”

Bertsokak



- Xabier Gonzalez (LH, 3.maila)
“Udaberria dator”
- Kepa Larrañaga (LH, 4.maila) “Txori kantaria”
- Ane Irigoien (LH, 5.maila) “Euroa”
- Mikel Zubimendi (LH, 6.maila)
“Etorkinak”
- Maddi Gallastegi (DBH, 1.zikloa)
“Arrauna”
- Oihan Iribar (DBH, 2.zikloa)
“Emigranteak”

- Mikel Zubimendi (LH, 6.maila) “
Kanpoan uso etxean otso”

Kontakizunak

- Irati Aldalur (LH,5.maila) “
Sorgindutako panpina”
- Elena Yeregui (LH, 6.maila) “Zuhaitz gaixoa”

BIGARREN HEZKUNTZAKO SARIDUNAK

Esaera zaharrak

- Iñigo Erkiaga (DBH, 1.zikloa) “Ez dago larrosarik arantzarik gabe”
- Jaiotz Osa (DBH, 2.zikloa) “Azkar eta ondo usoak egiten du hegan”

Zorionak denei!! Eta Jon Maiak bota zuen bertsoetako baten bukaerak zioen bezala, datorren urtean ere idatzi!!

MINTZAMENA

LEHEN HEZKUNTZAKO

SARIDUNAK

Esaera zaharrak

- Olatz Iruretagoiena (LH, 6.maila)
“Gezurtiak zer du merezi, egia esatean ez sinetsi”

AMETZA
taberna
Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak


Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



10
SARRERA
BAZKIDEENTZAT

**ADI,
BALEIKEKO
BAZKIDEEK!**

Bazkideen artean hamar sarrera zozketatu ditugu. Saritu bakoitzari bi sarrera dagozkio. Hauek dira:
Laura Esnal, Idoia Idigoras, Peio Carballo, Nuri Pons eta Samuel Ruiz.
Segituan bidaliko dizkizuegu sarrerak etxera. **ZORIONAK ETA GOZATU!!**

**Josu Waliño zumaiar onena
Julene Azpeitia ipuin lehiaketan**

LEHEN SARIA irabazi duen ipuina Xabier Gantzarainen "Horoskopoa" izan da. Aldizkari bateko horoskopoa darabil idazle batek gorrotatzen duen bere gaineko nagusi baten kontra menduak egiteko. Epaimahaiak idazlearen umorea nabarmendu zuen eta lantzen duen ironia fina, euskal komunikabideetako giroaren ezaupidea eta euskal kulturaren inguruan egiten dituen gogoeta sakon eta iruzkin zorrotzak goraiatu zituen.

Xabier Gantzarain ezaguna da "Euskaldunon Egunkarian" egiten dituen zuta-beengatik. Bigarren saria irabazi duen Laida Martinezen "Egunak eta gauak" ipuinean drogaren gai gogorra agertzen du modu oso sinple eta irakurterazean. Epaimahaiak kontraste horren meritua nabarmendu zuen, gai hain garrantza eta korapilatsua izanik, era oso sinplea eta zuzenean agertzen asmatzen baitu Laida Martinezek. Ipuineko neska protagonistak familiako giro jasangaitza eta

ikasketak egiten dituen institutuan bere kontra erakusten duten jarrera itxia kontrajartzen ditu drogaren mundu hasieran bederen askatzailea dirudienarekin. Zumaiarren Ipuinen saria irabazi duen Josu Waliñoren "Hargin andaluz" ,azkenik, Txirritaren izen horretako bertotik abiatzen da bi pertsonaien arteko istorioa asmatzeko. Guztira, 25 ipuin aurkeztu dira XV. edizio honetara eta horietatik zazpi zumaiarrenak izan dira.

normalizatu gabe dago oraindik"



Ekaitzaren ondoren barealdia datorrela esaten da. Durangoko azoka eromena izan ohi da Estirentzat. Hori igarota oporretan harrapatu dugu, patxada ederrean. Ekaitzaren ondoren lasaitasuna.

Zer moduz aurtengo Durangoko azoka?

Oraingoan hiru eguneko asteburua tokatu denez, jende gutxiago gerturatu da. Aurreko urtean lau eguneko izatean aurten baino jende gehiago izan zen. Hala ere, jende asko ibili da.

Gainera, umeentzat propio asteazkenean ekin zitzaion azokari, ezta?

Bai, horrela da. Astezkenean umeentzat bakarrik ireki genuen. Esperientzia polita izaten da. Umeek galdetu egiten dizute, dituzten zalantzak argitu nahi izaten dituzte. Ez dira gainontzeko bezeroak bezalakoak. Horiek erosi eta kitto. Adibidez, bada jendea Elkarrek atera duen disko bat erostera Metak disketxearen saltokira hurbiltzen dena. Merkataritza zentro batean bezala jokatzeko dute batzuek, eta Durangoko azokaren filosofia ez da hori. Umeek, aldiz, galderen bitartez disketxeak bereizten ikasten dute, eta alde horretatik oso polita da.

Bestelakoan, bete al dituzue zuen helburuak?

Jakinaren gainean geunden iaz baino gutxiago salduko genuela. Hortaz, horren arabera helburuak ipini genituen, eta bete ditugu. Udaberriko salmentak ikusita bagenekien gutxi gorabehera nondik nora ibiliko ginen. Eta udaberrian asko jaitzi da salmenta. Hortaz, espero genuen gutxixeago saltzea. Zerbakiak ematen hasita, iaz baino % 20 gutxiago saldu dugu. Durangoko azoka termometro ona izaten da disketxeen eta argitaletxeen osasuna nolakoa den ikusteko.

Zergatik izan da aipatu duzun udaberriko jaitziera hori?

Nik uste dut krisi ekonomikoaren barruan bilatu behar direla zergatiak. Euroaren kontuak ere eragina izango zuen, akaso.

Euskal kulturaren benetako aurpegia al da urtero Durangon ikusten dena?

Oso fenomeno berezia da. Kilometroak eta antzekoekin parekatuko nuke. Izugarritzko jendetza. Benetako aurpe-

Elkar disketxeko produkzioaren koordinatzailea izanik buru-belarri murgiltzen da Durangoko azokan. Euskal kulturaren festatik abiatuta bere lanarekin lotuta dauden beste hainbat gairi buruz ere jardun dugu Esti Esteibarrekin.

gia den? Hori da denon kezka. Guk, adibidez, urte guztian zehar ateratzen ditugu diskoak. Ba, udaberrikoek ez dute udazkenekoen harrera bera izaten; Durangokoa oso gauza arraroa da. Guk udaberrian zazpi disko kaleratu genituen, eta udazkenenean beste horrenbeste. Iraila aldean atera genituen, baina jendeak Durangoko azoka gerturatzan ari den heinean jakiten du hori. Badirudi, bitartean inori ez diola axola zer argitaratzen den.

Horregatik esaten nizun ea benetako itxura den, edo hiruzpalau eguneko haize indartsua...

Nik uste dut euskal kultura normalizatu gabe dagoela. Horregatik jendeak behar du Durangokoa bezalako zerbaite. Indarra hartzeko edo. Jende denak euskaraz hitz egiten du, euskarazko produktuak dira denak. Ematen du militantzia kontua dela: batzuk itsu-itsuan joaten dira, eta izugarrizko erosketa pila egiten dute. Askotan gainera, zer arraio den jakin gabe. Musikari jakin baten azkena delako bakarrik erosten dute. Alde horretatik fenomeno berezia da. Bestalde, estrategia komertzial bezala ere erabiltzen da. Ez da alferrik Gabonen bueltan egiten.

Disketxe eta argitaletxe batetik bestera ere alde handi xamarak daude. Azokan batzuek izugarrizko leku handia dute, beste batzuek...

Azoka antolatzen duen Gerediaga elkarteak katalogoen arabera banatzen ditu saltokiak. Zenbateko katalogoa, horrenbesteko saltokia. Gureak, Elkarrek hogeita hamar urte daramatza diskoak kaleratzen, seirehun erreferentzia baino gehiago ditugu. Horren arabera hogeit metroko saltokia eman digute.

Desberdintasun horiek zuen arteko haserreak sortzen al ditu?

Ez dakit, baina orohar harreman onak ditugu gainontzeko disketxeekin.

Zein izan da gehien saldu den disko?

Benito Lertxundirena. Ostiralean mila ale saldu genituen, eta guztira bi mila edo.

Zuek kaleratutako disko izan da Benito Lertxundirena, eta zu produkzioaren koordinatzaile izan zara. Zer arraio da hori?

Disketxeko koordinazioa. Prozesu bat da: musikaria disketxera dator eta tratua egiten du nagusiarekin. Orduantxe hasten da nire lanetako bat: grabazioerako behar duten dena koordinatu; argazkilariarekin eta disenatzailearekin harremanetan jarri; musikariei letrak eskatu, zuzendu, eta itzultzaileei bidali. Egin behar diren pauso horiek denak egin eta gero, fabrikara bidiltzen da produktua. Hortik bueltan hasten da nire lanaren beste alderdia. Hauxe da nire benetako lana, nolabait esateagatik: diskoak aurkezteko prentsa-aurrekoak antolatu; komunikabideekin harremanetan egon diskoaren inguruko berriak emateko (kontzertuen nondik norakoen berriak zabaltu, grabazioen berri eman, etab). Publizitate kanpainak ere antolatzen ditut, musikariekin komunikabide

Merkataritza
zentro batean
bezala jokatzeko
dute batzuek, eta
Durangoko
azokaren filosofia
ez da hori



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



batetik bestera ere ibiltzen naiz. Bi hitzetan esanda, promozionatzea da nire lana, diskoak promozionatzea, saltzea.

Demagun saldu edo promozionatu behar duzuna ez zaizula gustatzen. Zer egiten duzu?

Sinistu egin behar dut. Nik neure gustuak ditut, eta badira batere gustatzen ez zaizkidan lanak. Euskal musika barruan daramat. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Imanol, Xabier Lete, bertsolariak, trikitilariak barru-barrukoak egiten zaizkit. Litekeena da horien lanen bat ez gustatzea, baina saltzeko garaian asko laguntzen dit hurbilekoak ditudala sentitzeak.

Saltzerako garaian esperientzia ere lagungarria izango da, ezta?

Dudarik gabe. Hasieran egi gehiegi estean dituzu. Gero, denborarekin ikasi egiten duzu. Komunikabideekin, hala ere, oso harreman zintzoa daukat. Azkenean, elkarren beharra daukagu. Haiek gurea, eta guk haiena. Hori bai, hasierak ez ziren xamurrak izan. Ez nuen kazetari bat bera ere ezagutzen, eta hori zailtasun handia zen. Orain, berriz, batzuekin eguneroko harremana daukat. Konfiantza

daukat, eta asko laguntzen du horrek. Denborak erakusten dizu batekin edo bestearekin jardun erregistro desberdinak erabili behar dituzula.

Urtean zehar zenbat disko promozionatzen dituzu?

Gutxi gorabehera hamabostetik hogeira bitartean. Asko produzitzen da.

Esan duzu musikariekin harreman zuzena daukazula. Norabitek harritu al zaitu?

Ez, azkenean pertsona normalak dira, besteak bezalakoak. Egun guztia beraiekin egonda konturatzen zara besteen antzekoak direla. Ez nau inork harritu, baina bat esatekotan Xabier Lete esango dizut. Bete-beteko gizona da, goitik beherakoa.

Produkioko arduradun izateak asetzen al zaitu? Zein dira zure helburuak?

Asko gustatzen zait nire lana. Gainera, ikastea da nire asmoa. Hasi nintzenetik hona gauza asko aldatu dira. Pentsa, orduan faxa erabiltzen genuen harremanetarako. Orain, e-posta. Erraztasun gehiago ditugu, baina baita lan gehiago ere. Atzerritarrekin harreman gehiago dauzakgu orain. Lana bera da, baina handitu egin da. Gero eta hobeto egitea da helburua.

Atzerria aipatu duzu. Nolako harrera dauka euskal musikak gure mugetatik kanpo?

Zaila da balorazio zehatza egitea, baina harrera ona daukagu. European, esaterako, komunikabide dextenterekin ditugu harremanak. Japonen beste horrenbeste. Estatu Batuetako kazetari batzuekin ere baditugu hartuemanak.

Poliki-poliki lantzen joan den arloa izan da. Nik egunero atzerriko bost bat mezu jasotzen ditut diskoak eskatuz. Etengabeko harremana daukagu, baina gehitu egin beharko litzateke. Hor daude, esaterako, European egiten diren azoka ospetsuak. Parte hartzen dugu azoka horietan, eta oso baliagarriak dira jendea ezagutzeko.

Eta estatu mailako harrera nolakoa da? Katalunikoa eta Madrilekoa oso ona. Galizian ere estimatzen gaituzte, agian

Nik egunero atzerriko bost bat mezu jasotzen ditut diskoak eskatuz

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIK HORTZ KLINIKA

Plazoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Iraundegi Egoibar

KABI
TABERNA - ZUMAIK
Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

haien egoera eta gurea antzekoak direlako. Badira pertsonalki deitzen duten kazetariak ere, Sevillakoak, Murtziakoak, Valentziakoak, etab.

Gaiaz aldatuta, pil-pilean dago diskoak pirateatzeren auzia. Zein da zure iritzia?

Beti egon da pirateria hori, etxean egiten dena bai behintzat. Arazoa etorkinek saltzen dituzten diskekin, eta Internetetik jaitzi eta grabatzen direnekin handitu da. Etorkinena legez kanpoko da, eta harrigarria da horren aurkako neurririk ez hartzea. Pentsa, lehengo urtean Durango bertan azokaren ondo-ondoan beste azoka antzeko bat jarri zuten etorkinek. Ba, guk atera berria genuen Oskorriren "Vizcayatik Bizkaiara" disko kalean zuten salgai. Ia-ia gurekin batera.

Zenbaterainoko galerak eragiten dizkizue horrelakoek?

Euskal diskogintza independentea denez, etorkinen salmentek sortutako kalteak ez dira hainbestekoak. Multinazioei bai, horiei izugarritzko kaltea egiten diete. Guri etxeko eta Interneteko pirateriak eragiten digu gehienbat.

Nola konpon daiteke arazo hori?

Internetekoak ez du konponbiderik. Azkenaldian asko entzuten dena da disken prezioa jaitea. Egia da garestiak direla, baina gaur egun zer ez da garestia? Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) murriztuko ote den zurrumurruak dabilta hor zehar. Ez litzateke erabaki txarra izango. Liburugintzan gutxiti zuten. Orain urte pare bat Joseba Sarrionandiaren diskoa atera zuten, liburuxka itxurarekin. Jendeak zioen merkea zela, diskoa izanagatik ez zela garestia. Liburugintzako BEZa ezarri zioten, eta horregatik zen beste edozein disko baino merkeagoa. Agian, pirateriaren istorio honek molde edo formato

berriak sortzera eramango gaitu. Aldaketak ekarriko ditu, seguru, zenbaterainokoak ez dakit.

Disketxeen buruhausteetako bat pirateria da. Bestea "Operación Triunfo" delakoak sortutako zurrumbila.

Hor ikusten da telebistaren eragina nolakoa eta zenbaterainokoa den. Guk geuk ere ikusi dugu hori. Telebistan iragarri ditugun diskek sekulako harrera ona izan dute. Azken finean, OT hori da, estrategia komertziala, komunikabide jakin baten estrategia komertziala.

Testuinguru honetan arriskuan al dago euskal diskogintza?

Ez, ez dut uste. Aipatutako bi kontu horiek ez dute gudan eraginik handirik. Jaitziera bat eman da, baina ez dut uste pirateriarengatik eta OTrengatik izan denik. Benito Lertxundiren diskoa nahi duena erosi gabe geldituko al da OT koa bere alabari erostegatik? Harritzen zait.



32 urte ditu

ESTI ESTEIBARrek.


Nekazal Ingeniari

Teknikoa da, eta

orain kazetaritza

ikasten hasi da. Musika, dantza eta

mendia ditu gustuko.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523



urteko etorria



Datorrela Zumaiako

bertso-eskola. Hau da nahi

duzun doinuan eta neurrian

hiru bertso kantatzeko gaia:

20 urte bete dituzu.

Nolakoak izan dira?

Hemendik aurrera zer?

PENTSAKOR dago bertsolaria. Urduri. Begirada belodromoko izkina batean galtzen zaio. 20 urteko ibilbidea, izen ugari, gertakizunak ere asko, errepasso zabala egin edo une zehatz bateko gorabeherak aipatu... Azkenean hasi da. "Habanera" doinua aukeratu du.

Bertso mundua zabaltzen aurreko mendean hasi, puntu, doinu eta neurri guzti-guztia irakatsi. Heldu, gazte eta ume nire eskolan nahasi, mugimendu guzti horrekin zumaiarrek irabazi. Neroni izango nintzen etorkizuneko hazi, eta haziak hasita mende laurdena du kasi, baina nola sortu nintzen esango dut lehendabizi: ikastolen baitan jaio, ikastolen baitan hazi.

Horrelaxe izan zen, bai. Duela hogei bat urte, laurogeiko hamarkadaren hasieran hasi zen lehen pausoak egiten Zumaiako Bertso Eskola. Ikastolaren baitan izan zen, eta gidari Joanito Dorronsoro izan zuen. Bi helburu zituen, Joanito berak kontatu digunez:

- Euskal kulturaren altxor preziatue-netakoa den ahozko tradizioa mantenduz eta indartuz, bertsolaritza irakatsi.
- Gure hizkuntza, euskara, bultzatu.

Hasiera hark bi bide izan zituen: ikastolan irakasten zituzten ikasgaietako bat zen. Astean ordubete ematen zen, Joanito bera maixu zela. Bertso zaharrak ikasiz eta kantatuz lehen aipatutako ahozko tradizioa gorde nahi zen, eta bide batez, haurrak bertso mundura hurbildu. Puntuka ere jartzen zituen Joanitok ikasleak.



Tirriki-tarraka bertsoak egiten ere ikasten zuten.

Gero, abilezia gehien eta lotsa gutxien zutenek bigarren bideari ekin zioten. Ikastolako ordutegitik kanpo Bertso Eskolan jarduten zuten bertsolari edo bertsozale izateko ikasi nahian. Astean ordubetez biltzen ziren ikastolan bertan.

Izen-abizen guztiak ezin orain gogoratu, hala ere, nahi nituzke zenbaitzuenak aipatu: Jon, Felix, Esti, Iñigo kantatu eta kantatu; Bitarte, Manu ta Hilarioz nola ez ba akordatu. Doinurik egokiena ahal bada aukeratu, baina lehenengo gauza bukaera ondo prestatu.... arauen aurretik baina hauxe nahi nuen finkatu: bertsoen bidez jolastuz euskararekin gozatu!!

Aurreneko ikasleak hauek izan ziren: Josu Garate, Mikel eta Iñigo Berastegi, Angel Etxaniz, Mikel Garate, Amaia Iribar, Iker Urain eta Andoni Aizpurua.

Bertso Eskola sortu eta berehala kanpora joaten hasi ziren. Kontuan izan Zumaiakoa izan zela aurrenetakoa;

horregatik, kanpotik deitzen zieten kantatzera joateko. Lizarrara, Lesakara eta beste hainbat lekura joan ziren.

Eskolarteko bertsolari txapelketa ere garai hartan hasi zen.

Ikasleak aipatuta, maixu lanetan zebiltzanak ezin aipatu gabe laga. Manuel Bitarte, Joseba Kantari, Joxe Mari Urain, Manuel Garate, Jexux Iribar "Olalde" eta Joanito bera, besteak beste, aritu izan dira lan horretan. Baita Bertso Eskola sortu eta urte askora ere. Horietako bat edo beste hor ari da oraindik.

Nafarroako mendien gainek daukaten dizdira, han goitikan habanera ozen entzuten ari da. Doinuen bitartez nator Joanitoren harira, beragatik igo ginen txapelketaren mendira. Hurbildu ere hurbildu Ginen finalen argira, baina aldatu behar dut denboraren ikusmira. Iragana laga eta orain aurrera begira, gaur eguneko loreak geroko fruituak dira.

Maixu eta ikasleen lan bikainak emaitzak ekarri zituen. 1989an Eskolarteko

BERTSO ASTEA EGITARAUA

Bertsopaper-lehiaketa:

ikus oinarriak (epea abenduaren 27a)

Joanitoren liburuaren aurkezpena:

urtarrilaren 3an, eguerdian, Forondan.

Abenduaren 27an:

bertso-merienda Maialen Lujanbiorekin (ume edo gaztetxoei zuzenduta). Aita Mari kafetegian, arratsaldeko 6etan

Abenduaren 28an:

bertso-poteoa Sustrai Colina eta Mañukortarekin. Beheko plazan hasita, arratsaldeko 7etan

Urtarrilaren 3an:

bertso-afaria Anade elkartean, gaueko 9etan hasita, eta ondoren bertsopaperetako sari-banaketa

Urtarrilaren 4an:

Benito Lertxundiren kontzertua. Maria eta Jose ikastetxean, gaueko 10:30etan hasita.

Sarrera:

10 euro (aurrez erosiz gero 9 euro)

Salmenta-puntuak:

Foronda kultur etxea eta Turismo bulegoa



Bertso Eskolakoek egindako puntuak:

Nire amari eman
diot nik larrosa;

Negu hontan egingo du
hemen izotza;

Negu hontan Zumaian
egiten du hotza;

Harek entzun du berriz
mutu baten hotsa;

eta gero esan dit dela
hura arrotza;

Bertso Eskolan gaude
denok dugu poza;

Bertsoak nik egiten
pasatzen det lotsa;

Gabon hauetan behar
dugu guk bihotza

nahiz eta askotan
izan heriotza

ospatu behar dugu
Jesusen jaiotza;

Nire hozkailu hontan
sartzen da izotza

bertan egiten du ta
izugarri hotza

baita ere badegu
barruan arrosa;


Gure herrian ez da
hainbesteko lotsa

asko nabarmentzen da
bertan dagon poza;

Nire arkatx horia
ez dago zorrotza;

Nere amatxok dauka
luzea okotza;

balake



txapelketan bi txapel irabazi zituzten zumaiarrek, bat Jon Maiak, eta bestea Joxe Joakin Aizpuruak.

Joanitoren esanetan, lehenengo hamarkada, 80koa oparoagoa izan zen. Bat-batean eta bertso-paperetan lan ugari egin zuten. Lehen aipatu bezala, kanpora ere sarritan joaten ziren kantatzera.

90eko hamarkada trabatuagoa izan zela dio Joanitok. Zergatiak bilatzea ez omen da erraza. Hala ere, erakusten

zenbiltzanen jarraikortasun eza aipatzen du motiboetako bat bezala. Irakasle lanetan ari zirenek ahal zuen bitartean egiten zuen lan Bertso Eskolan. Gero, ikasketak eta lana tarteko utzi egin behar izaten zuten, eta katea eten egiten zen. Ikasleekin ere beste horrenbeste gertatzen zen, eta Joanitoren esanetan jarraikortasuna ezinbestekoa da bertsolari izan nahi bada.

Zorionez edo zoritxarrez txapelketek neurtzen dute bakoitzaren maila. 1997ko Txapelketa Nagusian lehen aldiz zumaiar bat izan zen finalean, Jon Maia. Alde horretatik Bertso Eskolako garai bateko lan ona nabarmendu zen. Hala

ere, hori lagata eskola beraren ibiltzeko era baldar xamarra izan zela esan digu Joanitok. Arrazoiak goraxeago aipatu ditugu.

Bestelakoan, irakasteko moldeak ere aldatu egin dira, baita Zumaiako Ber-

tso Eskolan ere. Oraingo irakasleak jantziagoak dira, prestatuago daude. Lehen bertso zaharren garrantzia oso handia zen, irakasteko helduleku nagusia ziren. Orain ere erabiltzen dira, baina bestelako teknikekin nahastuta.

Zaila egiten zait oso lehena gogoratzea, ez da atsegina izan igaro dudan trantzea.

Irakasteko
moldeak ere
aldatu egin dira,
baita Zumaiako
Bertso Eskolan ere



Hoberena izango da gerokoan pentsatzea, eta Maddi, Oihan, Jokin orain hemen aipatzea. Bete-betea datorkit etorkizuneko eltzea, denon nahia baldin bada bertsoekin jarraitzea, komeniko zaizue, bai, aholku hau oroitzea: zuen eskuetan dela beste hogeit betetzea.

horietako asko direlako bertsozale. Jende hori guztia erakarri nahi dute. Beraz, badakizue, euskal kulturaren altxor ederrenetakoa den ahozko tradizioak irautea nahi baduzue, eta bide batez euskarari bultzakada eman nahi badiozue Bertso Eskolako atea irekita daude. Eta ea beste horrenbeste eta gehiago betetzen dituen!! Zorionak!!



BAZKIDEENTZAT LIBURU BIKAINA

BALEIKE KULTUR ELKARTEA Bertso Eskolak atera behar duen liburuaren argitalpenean laguntzaile izan da. Hogeit liburu ditugu bazkideen artean zozketatzeko. Datorren zenbakian emango dizuegu zozketaren berri.

Gaur egun hiru taldetan banatuta daude ikasleak:

- 3. mailakoak, Gorka Iribar irakasle dutela.
- 6. mailakoak, Eneko Dorronsoro maixu lanetan ari dela.
- 16 urtetik gorakoak, Jon Maiarekin. Talde honetakoan dira Maialen Velarde, Maddi Gallastegi, Manex Elola, Jokin Gijarro, Markel Peñalba, Aitor Uranga, eta Urtzi eta Oihan Iribar.

Joanitik esan digunez, etorkizunera-ko duten helburu nagusia herrian bertso giroa indartzea da. Horretarako ikastolan ibili zirenak baliatu nahi dituzte,



MANUEL MARI GARATE:

"Bertso Eskolak zaletasuna gehitu dit"

Ez da bat-batean kantatzeko bertsolaria. Beste molde batekoa da, bertsopaperak egiten ditu. Bertso Eskolaren sortzaileetako bat. Zuhaitz zaharraren enborra.

Bertso Eskolan hasieratik izan zara. Nola gogoratzen dituzu sorrerako garai haiek?

Gure umeak beti bertsoen doinuak kantatzen aritzen ziren. Gu bertsozaleak ginen, eta Joanitorekin harremanetan jarri, eta horrelaxe sortu zen Bertso Eskola. Eskolarteko txapelketak antolatzen hasteak ere bultzada eman zigun.

Non biltzen zineten?

Ikastolan, Arrangoletan, astean behin.

Zenbateko taldea zineten?

Umeak eta maixuak kontatuta ez dakit zenbat, baina mordoxka bat.

Orain ere jarraitzen al duzu?

Bai, bai. Lehen baino errazago, gainera; jubilatuta nintzenetik denbora gehiago

izan. Astean behin biltzen gara Joanito eta biok, gauzak txukundu eta horrelakoak egiten.

